

Test Driven Development-en III. Coding Dojo MU-GEP-en

2015/03/31

Kata informatika graduko 3. mailako ikasleei zuzendu zitzaien eta, giro atseginean eta binaka, aurkeztutako arazoari TDD metodologia jarraituz irtenbideak proposatu eta arazoa konpontzeko estrategiarik onenari buruzko hausnarketa egin behar izan zuten.

Saioan erronka txiki bat aurkeztu zen, proben bidez gidatutako garapena praktikatzeko: paradigma horretan probak programazioaren aurretik garatu behar dira eta ondoren, birkonpondu, sistemak probak gainditu eta gero. Katan 3 iterazio egin ziren (30 minutukoa bakoitza).

Iterazio bakoitzean, lehenik eta behin, bikoteko kide batek balioztapen bat egiteko test bat idazten du, eta beste kideak funtzionalitatea implementatu behar du, testa gainditzeko. Testa gainditu eta gero bikotearen rola aldatzen dira, eta beste baldintza bati egin behar diote aurre. Iterazio bakoitzean bikotea aldatzen da, eta inplementatzen ari den irtenbidea komentatzen da, modu atseginean.

Kata horrekin informatikako graduko ikasleek softwarearen ingeniartzako ezagutzak osatu dituzte, TDD metodologia aplikatuz, izan ere, paradigma hori gero eta interes handiagoa ari da sortzen industria ingurunean. Rubenek planteatutako erronkari eta bertan jarraitutako metodologiari esker kontzeptuak ikasi ahal izan dituzte, eta ikasleek oso harrera ona egin diote.

